

**Reala** ♦ Luis Perezek gaur edo bihar sinatuko du kontratua Osasunarekin


# Minduta utziko du Reala

«Iruñean, behintzat, baloratu egingo dute nire jokoa»

Enekoitz Esnaola / Donostia

LUIS PEREZ badoa Realetik. Osasunara. Eta «gustura» doa, Realean ez zelako «zoriontsua». Jokalariak atzo ez zuen gauza zehatzik esan, bere egoera «oso nabarmena» delako eta bera ez delako «orain lelokeriak esaten hasiko», baina oso minduta dagoela iradoki zuen. Eta batik bat Bernd Krauss entrena-tzailearekin dagoela haserre. Izan ere, hutsaren hurrengo izan da bien arteko harremana Krauss 1997ko uztailean Realera heldu zenetik; harreman hotz hori areagotu egin da denboraldi honetan. Jokalaria bazekien, Zubietan ongi entrenatuagatik, ez zela deialdian sartuko. Eta Kraussek ez zion horretaz deus esaten. Eta Luis Perezek ez zion azalpenik eskatzen. «Ni langile bat naiz eta esaten didatena egiten dut, besterik gabe», zioen atzo goizean Zubietan emandako prentsaurrean.

«Nik dakidala, nik ez dut arazo pertsonalik Kraussek-kin», esan zuen ondoren, ironikoki, Luis Perezek. «Ea hemen beste bat bezala sentitu naizen? Guztiok dakigu zer gertatu zen nirekin. Entrenatzaile honi ez zitzaion nire joko-a gustatzen. Zorte txarra izan dut. Baina nik beti zintzotasunez jardun dut entrenatzen, beti guztia eman dut. Baina berriz diot guztiok [komunikabideok] dakizutela zer gertatu den nirekin».



JOSEBA OLALDE

Luis Perez, Valenciaren kontrako partidu batean. Realarekin 180 partidu jokatu ditu Espainiako Lehen Mailan.

## LUIS PEREZ

■ ■ ■ *«Guztiok dakigu zer gertatu den nirekin. Baina nik dakidala, ez dut arazo pertsonalik eduki Bernd Kraussek-kin. Zorte txarra izan dut»*

Zortzi denboraldi egin ditu Realekin Espainiako Lehen Mailan, eta 180 partidu jokatu, 25 gol sartu eta goleko anitz pase eman ditu. Ez dira nolana hiko datuak, eta hau ez da jokalaria «pentsatua» zeukan bukaera.

## Kontratu «egonkorra» Osasunarekin

Gaur edo bihar sinatuko du Osasunarekin, eta Luis Perezek «kontratu egonkorra» nahi du, hiru urtekoa edo.

Jada hitz egin du Martin entrenatzailearekin, eta gustura dago solasaldiaz. «Badakit han, behintzat, nire joko-a baloratu egingo dutela eta horrek fruituak emango dituela».

Nahiz eta Real-a batetik joango den Osasunara, ez ei du titular postua seguru ikusten. Orogen gainetik, ordea, gauza bat nahi du: «Berriz zoriontsua izan nahi dut. Futboleko ez zait ahaztu, eta aukera polit honetaz baliatu egin nahi dut».

## Krauss, Pikabea, Kuhbauer, Sa Pinto eta De Pedro sukarrarekin

Sukarrak jota dago Real-a. Atzo, esate baterako, Bernd Krauss, Dietmar Kuhbauer, Ricardo Sa Pinto eta Javier de Pedro sukarrarekin ziren. Krauss ez zen Zubietara azaldu ere egin, 39,5eko sukarra zuelako. Besteak bai, baina segituan itzuli ziren etxera. Pikabea ere halaxe dago joan den igandetik.

## Gaur 15:00etan Lyon-en kontra Zubietan

Gaur Realak Lyon-en kontrako lagunarteko partidu-a du Zubietan, 15:00-etatik aurrera, eta ez ditu jokalaria asko jokatze-ko, goian aipatutako haiez gain, Xabier Gracia, Loren eta Iker Sarriegi min hartuta daudelako. Baliteke Lorenek gaur jokatzea.

## Sarriegiri eman zion albistea Realak

Realak atzo esan zion Sarriegiri Eibarrera joango dela utzita. Jokalaria, aurreko egunean EGUNKARIARI esan zion moduan, baiezkota eman du. «Berriz maila onean joka dekadala erakutsi nahi dut», esan zuen atzo Zubietan.

## Iglesias ere Eibarrera joan daiteke

Realak atzo esan zuen balitekeela Raul Iglesias atezaina ere Eibarrera joatea utzita. Iglesias orain Toledon dago, utzita, eta ez du jokatzen. Bide bera segi dezake Realeko beste batek: Delmasek.

## hor zain

### Alkortak dio «ausart» jokatu behar dela Barçaren kontra

Etzi Athleticek (21:00, ETB1) Barcelonaren kontra jokatu-ko du, Nou Camp zelaian, eta bi taldeak sasoiko heldu-ko dira. Rafa Alkorta, Athleticeko defentsak esan du «ausart jokatu beharra» dagoela Barcelonaren kontra. Athletic Nou Campera «partidua irabazteko asmotan» zelairatuko dela ere esan du Alkortak, «nahiz eta Barçak egundoko ekipoa eduki, Ala-

vesen kontra erakutsi zuen moduan». 7-1 irabazi zuen Barcelonak.

### Hilaren 15ean jakinen da Marcelino Osasunara doan

Osasuna taldea Marcelino Diaz, Tenerifeko aurrelaria fitxatzekotan dabil, baina atzo jokalaria esan zuenez, «hilaren 15era arte ez da jakinen» Iruñeko klubarekin fitxatuko duenentz. Hiru hilabete daramatza negoziatzen Osasunarekin, eta joka-

lariak, Tenerifen aukerarik ez duela-eta, futboleko jokatzea nahi du, «Bigarren A Mailan bada ere».

### Grondona 2004rako Mundial berezi baten eske

Julio Grondona, Argentina-ko Futbol Federazioko presidenteak eskaera berezi bat egin dio FIFARI: «2004an beteko ditu FIFAk 100 urte eta urte horretan orain arte munduko txapeldun izan diren selekzioek Mundial berezi bat jokatu beharko luke-

te». Uruguai, Italiak, Alemaniak, Brasilek, Ingalaterrak, Argentinak, Frantziak eta 2002ko Mundialeko txapeldunak jokatuko lukete kasu horretan.

### Bocak gazteekin entrenatzeko eskaintza egin dio Caniggiari

Boca Juniors klubak jokalaria jubenilekin entrenatzeko eskaintza egin dio Claudio Caniggia aurrelariari, jokalaria hartara atzera sasoi-a hartuko duelakoan. Canig-

giak, baina, kluba uzteko asmoa dauka.

### Munduko jokalaririk onenak Johan Cruyffen omenaldian

Martxoaren 10ean egingo dio Barçak omenaldia Johan Cruyffi. Barçak eta Cruyffek zuzendutako ekipoa partidu-a jokatuko dute, eta Cruyffek munduko onenak gonbidatu ditu. Bereziki lau jokalaria: Frank eta Ronald de Boer anaiak, Dennis Bergkamp eta Ivan De la Peña.